

Donostian, 2017ko abenduaren 15ean

## IDAZKARITZA NAGUSIARI

### ETXERIK GABEKO PERTSONAK ERROLDATZEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Amaia Martinek, Irabazi Donostia taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetan PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN Batzordean etxerik gabeko pertsonen erroldatzea errazteko premiaren gainean egindako interpelazioaren harira.

### JUSTIFIKAZIOA

Udal errolda hartzen da egoitzaren eta ohiko bizilekuaren frogatzat, baina hori bakarrik ez. Praktikaren bidetik, funtsezko elementu bat bilakatzen da juridikoki onartutako oinarrizko eskubideak eta Euskadiko zerbitzu publikoak eskuratzeko eskakizunak bete ahal izateko.

Euskadin, gure lurraldean indarrean dagoen legeria gorabehera, 2.300 pertsonak baino gehiagok pairatzen dute bizitoki bazterkeria. Hainbat gizon-emakumek ez dute estalia etxebizitzarako eskubidea. Etxerik gabeko pertsonen oinarrizko eskubideak izatea eta eskubide horiek sostengatu eta bermatzea oinarrizko aldarrikapen bat da, eta erakunde publiko guztien obligazio bat.

Testuinguru horretan, Eusko Legebiltzarrak 2017ko ekainaren 15ean hitzartu zuen erakunde arteko batzorde parlamentario batek sakon aztertuko zituela erroldatzeko zailtasunak.

Horregatik guztiatik eta Eusko Legebiltzarrean planteatutakoari jarraikiz, hona hemen planteatzen dugun

## KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Donostian bizi diren pertsonen erroldatu ahal izatea bermatzeko, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean jasotako obligazioak betez, eta alternatibak bilatzeko, etxerik gabeko pertsona guztiak eta bizitoki bazterkeria pairatzen dutenak erroldatu ahal izatea bermatzearen.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio prozesu hori tresna egokien bidez jakinarazteko, Donostiako herritar guztiak erroldatzeko eta herritar gisa dituzten eskubideak baliatzeko aukera izan dezaten, informazio publikoa erraz irakurtzeko tresnak erabiliz eskura jartzen dela bermatuz.

Sin.: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea.